sanmarkos
Mankomunitatea

SAN MARKO MANKOMUNITATEKO BATZARRAREN AKTA
ACTA DE LA JUNTA DE LA MANCOMUNIDAD DE SAN MARCO

AKTA ZK./*ACTA Nº*	**292/18**
LEKUA/ *LUGAR*	San Marko Mankomunitatea Bilera aretoa *Mancomunidad de San Marcos- Sala de Reuniones* Vitoria-Gasteiz 10; Donostia-San Sebastian

EGUNA/ *DÍA*	**ORDUA/ *HORA***	**DEIALDIA/ *CONVOCATORIA***	**Deialdi eguna/ *Fecha convocatoria***
2018/11/23 *23/11/2018*	Hasiera/inicio: 12:00 Amaiera/final: 13:35	Ohikoa *Ordinaria*	2018/11/19 *19/11/2018*

BERTARATUAK

1. KIDEAK/*VOCALES*

UDALA/ *AYTO.*	**KIDEA/ *VOCAL***	**BERTARATUA/ *HA ASISTIDO*** BAI/SI	EZ/NO	**BOZKAK *VOTOS***
DONOSTIA SAN SEBASTIAN	Jaime Dominguez-Macaya Laurnaga (EAJ-PNV) *(Mankomunitateko Lehendakaria/ Presidente de la Mancomunidad)*	X		23,5
	Miguel Angel Diez Bustos (PSE)	X		23,5
LASARTE-ORIA	Jon Antxordoki Rekondo (*Suplente de* Estitxu Alkorta Barraganen ordezkoa). (EAJ-PNV)	X		6,5
	Agustin Valdivia Calvo (PSE)	X		6,5
PASAIA	Lore Suarez Linazasoro (PSE) (bilurako 3. Gaitik aurrera a partir del punto 3º del orden del día).	X		--
	Miriam Cano Puy (EAJ-PNV) (bilkurako 3. Gaitik aurrera, a partir del punto 3º del orden del día)	X		6,5
LEZO	Miguel Angel Sánchez Antúnez (EAJ-PNV)	X		5,5
	Enrique Figueroa Laboa (*Suplente de* José Ángel Sánchez Gallardo) (EAJ-PNV)	X		5,5
URNIETA	Mikel Pagola Tolosa (EAJ-PNV)	X		5,5
	Jorge Segurado Iriondo (EAJ-PNV)	X		5,5
ASTIGARRAGA	Juan Martin Arregui Sagües (EAJ-PNV)	X		5,0
	Mikel Duran Gonzalo (PSE)	X		5,0
ERRENTERIA	Jose Cruz Legorburu Ayestarán (*Suplente de* Miguel María Rodriguez Barbero (Irabaziz)	X		8,5
	Bernardo Lemos Taberna (BILDU)	X		8,5
OIARTZUN	Eneritz Arbelaiz Sarasti (BILDU)	X		5,5
	Iñaki Pikabea Lasa (BILDU)	X		5,5
HERNANI	Martin Aldaya Olasagasti (BILDU)	X		6,5
	Mª Coro Echeverria Tolosa (BILDU)	X		6,5
USURBIL	Irene Gartzia Palacios (BILDU)	X		5,5
	Xabier Arregi Iparragirre (BILDU)	X		5,5
2. BESTEAK/*OTROS*		**GUZTIRA *TOTAL***		**157**

IDAZKARIA/ *SECRETARIO*	Xabier Loiola Aristi	KUDEATZAILEA/ *GERENTE*	Pedro Ugartemendia Garro
KONTU-HARTZAILEA/ *INTERVENTOR*	Julian Ortiz Arruabarrena	TEKNIKARI JURIDIKOA/ *TÉCNICA JURÍDICA*	Mirari Arriola Irizar

GAI ZERRENDA	ORDEN DEL DIA
1. Aurreko bilerako akta onartzea.	1. Aprobación del acta de la reunión anterior.
2. Lehendakariaren ebazpenen berri ematea.	2. Dar cuenta de las resoluciones del Presidente.
3. 2019ko aurrekontuaren hasierako onarpena.	3. Aprobación inicial Presupuesto 2019.
4. Mankomunitateko eremuan, hondakinen gaikako bilketa□zerbitzua kudeatzeko kontratuaren luzapena onartzea.	4. Aprobación de la prórroga del contrato de servicio de recogida selectiva de residuos en el ámbito territorial de la mancomunidad.
5. Mankomunitateko ontzi arinen hondakinen planta ustiatzeko zerbitzuen kontratuaren luzapena onartzea.	5. Aprobación de la prórroga del contrato de servicios de explotación de la planta de residuos de envases ligeros de la mancomunidad.
6. 2017/825 prozedura arrunta zabaltzearen eraginez, prozeduran azaltzea eta espedientea administrazioarekiko auzien epaitegira bidaltzea agintzen duen 22/2018 ebazpena berrestea.	6. Ratificar la resolución 22/2018 de remisión del expediente al Juzgado de lo contencioso-administrativo y emplazamiento de interesados en la ampliación del procedimiento ordinario 825/2017.
7. 2015 ekitaldirako onartutako Mankomunitatearen behin betiko aurrekontuen aurka jarritako 138/2015 helegitearen epaia betetzea.	7. Ejecución de sentencia dictada en el recurso 138/2015, interpuesto contra la aprobación definitiva de los presupuestos de la Mancomunidad para el ejercicio 2015.
8. Galde-eskeak.	8. Ruegos y preguntas.

Bileraren gai zerrendako lehenengo eta bigarren gaiak tratatu direnean ez daude aretoan Agustin Valdivia (Lasarte-Oria), Miriam Cano (Pasaia) eta Mikel Duran (Astigarraga). 3. gaia aztertzen ari zela sartu dira bileran.

Cuando se han tratado los puntos primero y segundo del orden del día de la sesión no están presentes Agustin Valdivia (Lasarte-Oria), Miriam Cano (Pasaia) y Mikel Duran (Astigarraga). Se han incorporado a la sesión cuando se estaba examinando el punto tercero del orden del día.

1. Aurreko bilerako akta onartzea.

2018ko irailaren 28ko bileraren akta onartu da aldaketarik gabe. Batzarrera etorri ez zirenak abstenitu egin dira (Jon Antxordoki (Lasarte-Oria), Lore Suarez (Pasaia), Juan Martin Arregui (Astigarraga), Martin Aldaya (Hernani) eta Mª Coro Echeverria (Hernani)).

1. Aprobación del acta de la reunión anterior.

Se aprueba el acta de la sesión del 28 de septiembre de 2018 sin ninguna corrección. Los que no acudieron a la junta se han abstenido (Jon Antxordoki (Lasarte-Oria), Lore Suarez (Pasaia), Juan Martin Arregui (Astigarraga), Martin Aldaya (Hernani) y Mª Coro Echeverria (Hernani)).

2. Lehendakariaren ebazpenen berri ematea.

Azken batzarraz geroztik lehendakariak onartutako ebazpenen berri eman zaio Batzarrari (12 ebazpen): 30/2018 zk.tik 41/2018 zk.ra.

2. Dar cuenta de las resoluciones del Presidente.

Se ha dado cuenta a la Junta de las resoluciones aprobadas por el Presidente desde la última Junta (12 resoluciones): nº 30/2018 a 41/2018.

3. 2019ko aurrekontuaren hasierako onarpena

Bilerara sartu dira Agustin Valdivia (Lasarte-Oria), Miriam Cano (Pasaia) eta Mikel Duran (Astigarraga).

Lehendakariak azalpenetan hasi aurretik galdetu die batzarkideei ea inori proposamenaren inguruko inolako informaziorik falta izan zaion. Inork ez du kexarik azaldu.

Aurrekontu proposamenaren inguruan dio aurrekontu kontinuista dela dio, 2018koaren ildotik, horixe izan baita hainbat urteren buruan auzi errekurtsorik izan ez duen lehenengoa, eta haren oinarria da udal bakoitzak jasan dezala Mankomunitatetik jasotzen dituen zerbitzuen kostua.

Aurrekontu proposamena bidali ondoren irekin zen iradokizunak egiteko epean Oiartzungo eta Usurbilgo udalek aurkeztutako idatziak erantzun ditu lehendakariak:

3. Aprobación inicial Presupuesto 2019

Se incorporan a la junta Agustin Valdivia (Lasarte-Oria), Miriam Cano (Pasaia) y Mikel Duran (Astigarraga).

Antes de iniciar su exposición el Presidente pregunta a los junteros si a alguien le ha faltado información sobre la propuesta. Nadie se ha quejado.

Respecto a la propuesta de presupuesto dice que el presupuesto es continuista con respecto al del año 2018 ya que ese ha sido el primero en varios años con el que no ha habido recursos judiciales y cuyo principio es que cada ayuntamiento soporte el coste de los servicios recibidos de la Mancomunidad.

El presidente ha contestado a los escritos presentados desde los ayuntamientos de Oiartzun y Usurbil en el periodo de sugerencias abierto desde que se envió la

propuesta de presupuesto:

Biohondakinaren karakterizazioaren inguruan dio GHKk eta Mankomunitateak berak egindako karakterizazioen datuak emango dituela bilera honetan kudeatzaileak. Eta 2019rako aurrekontuetarako 25.000 €-ko partida proposatuta dagoela, karakterizazioak egiteko.

Sobre la caracterización del biorresiduo dice en esta misma sesión que el gerente dará los datos de las caracterizaciones realizadas por GHK y por la propia Mancomunidad. También dice que se en los presupuestos se ha propuesto para el 2019 una partida de 25.000 € para realizar caracterizaciones.

Trazabilitatearen inguruan dio jarraipena egitea posible bada ere, ia ezinezkoa dela hondakin guztien trazabilitatea kontrolatzea. Organikoari dagokionez, Mankomunitateko udal gehienek A kalitate mailako konposta daukatela dio eta inpropioei buruzko kanpainak egiten jarraituko duela Mankomunitateak.

Sobre la trazabilidad dice que si bien es posible hacer un seguimiento, es prácticamente imposible controlar la trazabilidad de todos los residuos. En relación al orgánico, dice que la mayor parte de los ayuntamientos de la Mancomunidad tiene un compost de calidad A y que la Mancomunidad seguirá realizando campañas en relación a los impropios.

Garbigune gehiago sortzearen eskaeraren inguruan dio gaur daudenak nahiko modu estrategikoan kokatuta daudenez, Mankomunitateko herritar gehienek gertu daukatela halako bat. Eta zenbait pasu eman direla eta emango girela garbiguneetako zerbitzuak hobetzeko. Gogoratu du ere inongo udalerrik garbigunea jartzeko proposamenik ez duela egin.

Sobre la solicitud para la creación de más garbigunes dice que los actuales están situados bastante estratégicamente, de forma que la mayoría de los ciudadanos de la Mancomunidad tienen uno cerca. Y que se han dado pasos y se darán más para mejorar los servicios de los garbigunes. Recuerda también que ningún municipio miembro ha realizado ningún planteamiento para poner garbigunes.

Sailkako bilketa hobeto asmoz dio herriz herri ibiltzen den bilketa furganetaren zerbitzua indartzeko baldintzak ari direla lantzen hurrengo lehiaketarako. Eta baita ere aztertzen ari direla "minigarbiguneak" ezartzeko aukera, hau da, zenbait sarrera independente dituzten ontziak. Zenbait modelo aztertu dituzte. Abantailen artean legoke ez dela beharrezkoa arretako langilerik, posible dela herriguneetatik gertuago kokatzea eta espazio gutxiago okupatzen dutela. Modeloren bat balioetsi dute, baina kostu handikoa izanik (40.000 € inguru), beste modelo batzuk aztertuko dituztela.

Al objeto de mejorar la recogida selectiva dice que se está estudiando para la siguiente licitación ampliar y mejorar el servicio de la furgoneta itinerante que acude a todos los municipios. Y que también se está estudiando la posibilidad de implantar "minigarbigunes", receptáculos con varias entradas independientes. Se han estudiado varios modelos. Las ventajas serían que no es necesario personal de atención, que es posible ubicarlo en sitios más céntricos y que ocupan un espacio más reducido. Se ha valorado algún modelo, pero dado el elevado coste (aproximadamente 40.000 €) se analizarán otros modelos.

Zuendari-kudeatzaileak aurrekontuarekin lotutako gai esanguratsuenak aipatu ditu.

El gerente señala los temas más significativos del presupuesto.

Diru-sarrerei buruz azpimarratu ditu:

Sobre los ingresos subraya:

Paper eta kartoiaren salmentan jaitsiera nabarmena aurreikusi dela merkatuaren

Que se ha previsto una disminución notable por que la situación del mercado es muy

egoera oso zaila delako. Indarrean dagoen kontratua gutxieneko prezioak ditu baina esleipendunak merkatuko prezioen jaitsiera medio kontratua betetzeko sailtasunak aipatu ditu errejistratu duen idatzian.

difícil. El contrato vigente tiene unos precios mínimos pero la adjudicataria ya ha manifestado por escrito registrado las dificultades para cumplir el contrato el contrato por la bajada de los precios del mercado.

Ontzi arinen bilketan dio Ecoembes eta Eusko Jaurlaritzaren arteko kontratua luzatu gabe dagoela. Egoera honetan, Ecoembesi diru gehiago eskatzeko aukera egongo delakoan dago. Aurrekontuan hartu den irizpidea da egungo kontratuaren gutxiengo prezioak mantentzea 2019an.

En la recogida de envases dice que el contrato marco entre Ecoembes y el Gobierno Vasco está sin prorrogarse. En este contexto, considera que será posible exigir más dinero a Ecoembes. El criterio presupuestario es mantener los precios mínimos del contrato actual en 2019.

Poligonoetako bilketako diru-sarrerak igotzen direla dio, bi arrazoi nagusiengatik:bat, abian dagoen ikuskaritza ekimenagaren ondorioz poligonoetan altan ez zeuden hainbat enpresa azaleratzen ari direlako eta, bi, Hernaniko udalak urtarrilatik poligoenetako bilketa Mankomunitatearekin egiteari utziagatik ere kopuruak mantendu egin direlako. Aurreikusten zen jaitsiera ez da eman, aktibidadearen kopuru eta fakturatutako tasengatik. Horregatik 2019an zifrak mantentzea espero dela dio.

En la recogida de polígonos los ingresos aumentan por dos motivos fundamentales:uno, como resultado de la campaña de inspección que se está realizando se han detectado algunas empresas que no estaban dadas de alta y, dos, por que han mantenido las cifras de recogida a pesar que desde enero el ayuntamiento de Hernani dejara de utilizar el servicio de recogida en polígonos de la Mancomunidad. No se ha producido la disminución que se preveía debido al volumen de actividad y las tasas facturadas. Dice que se espera mantener las cifras en 2019.

Aizmendi isurtegian, diru-sarrerak jaisten ari dira: merkatuan beste aukerak daudelako eraikuntza-hondakin gutxi jasotzen direla dio eta zabortegia poligonoetako inerteak bideratzen direla. Hausnartu beharreko gaia dela dio besteak beste tasen inguruan.

En el vertedero de Aizmendi descienden los ingresos: por otras opciones que hay en el mercado se recogen pocos residuos de construcción y está quedando un vertedero para los inertes de los polígonos. Cree que es un tema de análisis, entre otros temas, el de las tasas.

Ontzi arinetan, sarrerak hobetzen jarraitzen dela, halere 2018ko zifrak mantendu dira.

En envases ligeros dice que se siguen mejorando las cifras. No obstante se mantienen las cifras de 2018.

Udalen ekarpen orokorrei buruz dio iazkoak mantendu direla, besteak beste, zerbitzu konkretu batzuei lotuta jaitsierak daudelako eta ondorioz zerbitzu horietara bideratuko direlako.

Respecto a las aportaciones generales de los ayuntamientos dice que se han mantenido las del año pasado, entre otros motivos, porque hay unas bajadas vinculadas a unos servicios concretos y en consecuencia se van a destinar a esos servicios.

Udalen zerbitzuen araberako ekarpenetan, igoera nabarmenak daudela dio, zerbitzu horiek erabiltzen dituzten udalei dagokienak. Ekarpen hori osotasunean handitzen da, gehienbat poligonoetako bilketaren oreka

En las aportaciones de los ayuntamientos en función de los servicios dice que hay aumentos significativos, que corresponden a los ayuntamientos que utilizan esos servicios. Esa aportación aumenta en su totalidad,

ekonomikoa 60.000 € okerrago delako. Hori lotuta dago orain lizitazio fasean dagoen kontratu berriarekin. Bilketa selektiboan 60.000 €ko aldea dago.

mayormente porque el equilibrio económico de la recogida de polígonos es 60.000 € peor. Eso está vinculado con el nuevo contrato que ahora está en fase de licitación. En la recogida selectiva hay una diferencia de 60.000€.

Bio-hondakinetan ere igoera badagoela dio, 85.000 €koa, eta kontratu hau aldagarria dela jasotako kopuruen arabera. Kopuruak goraka joan dira.

En la recogida de biorresiduos dice que hay un aumento de 85.000 euros, si bien este contrato es modificable, en función de las cantidades recogidas. Las cantidades han ido subiendo.

Gastuei dagokienez azpimarratu ditu:

Con relación a los gastos subraya:

Pertsonal atalean plantila kontsolidatu egiten dela, gaur egun dauden 10 langilerekin. Aurreikusten da Estatuko aurrekontu zirriborroetan barneratu den soldata igoera aplikatzea: 2,25% finkoa eta beste batzuk aldagarriak. Aurrekontuan barneratuta daude.

En el apartado de personal se consolida la plantilla con las 10 personas trabajadoras existentes en la actualidad. Se prevé aplicar una subida en salarios del 2,25% fijo y otros variables, conforme al borrador de los presupuestos generales del Estado. Están incluidos en el presupuesto.

Poligonoetako bihondakinaren jasoketan gastua nabarmen igotzen da. 2018ko egoera mantenduko dela aurreikusten da. Zorionez lehengo urtean aurreikusitako baino bio-hondakin gehiago jasotzen ari dela dio.

Aumenta considerablemente el gasto de la recogida del biorresiduo de los polígonos. Se prevé el mantenimiento de la situación de 2018. Dice que afortunadamente se está recogiendo más biorresiduo que lo previsto el primer año.

Kanpoko hiri-hondakinen tratamenduaren partidarik handiena, 17.000.000 €tik gorakoa dena, jaisten da, aurtengo kopuruak hurrengo urtean mantentzea espero delako.

Disminuye la mayor partida del tratamiento de residuos urbanos externos, superior a los 17.000.000 €, ya que se espera mantener las cifras de este año en el próximo.

Poligonoetan eta San Marcos zabortegia kudeatzeko zifrak handitzen dira. Hau lotuta dago martxan dagoen lizitazioarekin.

Aumentan las cifras de gestión de los polígonos y del vertedero San Marcos. Esto está vinculado con la licitación que está en marcha.

Bestelako zenbait bilketa txikiagoetan igoera batzuk daudela dio, aurtengo bolumenetan oinarrituta.

Dice que hay algunas subidas en otro tipo de recogidas menores, en base a los volúmenes de este año.

Urnieta sailkatze plantan koste-igoera nabarmena da, eta hori lotuta dago guztiz sartzen diren ontzi-arinen kopuruarekin. Diru-sarrerak ere altuak direla dio.

En la planta de clasificación de Urnieta hay un aumento considerable de coste, totalmente vinculado a la cantidad de envases ligeros que entran. Dice que los ingresos son altos también.

Inbertsioen atalari buruz dio inbertsio bakoitzari jarri zaion izena inbertsioaren deskribapena barneratuta daukala eta, horregatik, ez dituela banan-banan azalduko.

Sobre el apartado de inversiones dice que el nombre que se le ha asignado a cada inversión contiene la descripción de la inversión y que por eso no se van a explicar

Dena den azpimarratu ditu bulegoetan zonalde bat egokitzeko asmoa kontratazio elektroniko digitala online egin ahal izateko, eta 50.000 € partida, gaur egun zerbitzu orokorretan erabiltzen diren ibilgailutik bat kendu eta ibilgailu elektriko bat erosteko.

una por una. El ha destacado la reforma de la oficina para habilitar una zona para poder realizar la contratación electrónica digital online y la partida de 50.000 € para sustituir uno de los vehículos que se utilizan actualmente en servicios generales y comprar un vehículo eléctrico.

Ondoren bide ematen zaie batzarkideen ekarpenei:

A continuación, se da paso a las aportaciones de los/las vocales:

Xabier Arregik Usurbilgo eta Oiartzungo udalek idatzietan aurkeztutako ekarpenak azaldu ditu.

Xabier Arregi expone las aportaciones presentadas en los escritos de los ayuntamientos de Usurbil y Oiartzun.

Ekarpenaren asmoa Mankomunitateak gaur egun egiten den lanari joera bat eranstea dela.

La intención de la aportación es añadir una tendencia, un objetivo al trabajo que realiza actualmente la Mancomunidad.

Beharrezkoa ikusten dute Mankomunitateak etengabeko hobetzeko prozesu batean sartzeko plangintza bat lantzea. Hondakinen gaian ezin dela izan kontinuista, eta kudeaketa konformista kaltegarria dela iruditzen zaie. Horregatik planteatu dituzte hasieran lehendakariak komentatu dituen hiru gaien errebisioa:

Consideran necesario elaborar una planificación para que la Mancomunidad entre en un proceso de mejora continua. Dice que en el tema de los residuos no se puede ser continuista, dice que es perjudicial que la gestión sea conformista. Por eso han planteado la revisión de los tres temas comentados por el presidente:

Karakterazioei dagokienez: kexatu da udal ordezkari den heinean orain arte egindako karakterizazioen emaitzen informaziorik jaso ez izana. Iruditzen zaio udalen esku jarri behar direla (bai GHKk egindakoak bai Mankomunitateak egindakoak). Nahiz eta lehendakariak aipatu emaitzak ontzat baloratu, desberdintasuna badaude udal desberdinen emaitzen artean eta denen organikoa nahasteak arriskuak ekar ditzakela dio. Horregatik eskatzen du etengabeko zaintza eta karakterizazio sistematikoak egitea. Eta, horretarako, jarraipena, informazioa eta aurrekontu bat eskatzen da.

Respecto a las caracterizaciones se queja de que como representante municipal que es no hayq recibido información sobre los resultados de las caracterizaciones realizadas. Le parece que se tienen que poner a disposición de los ayuntamientos (tanto la realizada por GHK como la realizada por la Mancomunidad). A pesar de valorar positivamente los resultados, dice que hay diferencias entre los resultados de los distintos municipios, y mezclar el orgánico de todos puede suponer riesgos. Por eso solicita realizar una vigilancia continua y caracterizaciones sistemáticas. Eso exige un seguimiento, información y presupuesto.

Trazabilitateari buruz, dio karakterizazioarekin lotuta dagoela. Eta galdera batzuk planteatu ditu: zer gertatzen den Mankomunitateak jasotako material organikoarekin, nola tratatzen den eta zer kalitatea daukan hortik ateratzen den konposta. Ekonomia zirkularraren ikuspegitik tratatu beharko litzateke gaia. Organikoaren kategoriak ondo sailkatu behar dira eta beraien ibilbidea jarraitu. Ildo horretatik,

Trazabilidad. Vinculado con lo anterior. Se plantean unas preguntas: ¿qué ocurre con la materia orgánica recogida por la Mancomunidad? ¿Cómo se trata y qué calidad tiene el compost que se extrae de ahí? Se debería tratar desde la perspectiva de la economia circular. Se tienen que clasificar bien las categorías del orgánico y seguir su itinerario. En ese sentido, solicita información sobre dónde y cómo terminan

Mankomunitatean biltzen diren gai guztiak non eta nola bukatzen diren informazioa eskatzen da. Horren atzean dagoen helburua, kalitatea zainduta gero eta gaikako bilketa handiagoa edukitzea. Ez du uste autokonplazientzian erori behar denik.

todas las materias que se recogen en la Mancomunidad. El objetivo que subyace es tener una recogida selectiva cada vez mayor, preservando la calidad. Entiende que no se debe caer en autocomplaciencias.

Garbiguneen gaian dio planteatu behar dela ea arazo baten aurrean gauden, kalean zehar edukiontziaren inguruan ikusten direlako era guztietako trasteak. Ohitura zabaldu bat badago edozein gauza edukiontzien aldamenean uzteko. Garbigunera eraman behar dira. Mankomunitateak eta udalok bultzatu behar dute horren inguruko informazioa. Horrelako ekintzak bultzatzeko inbertsio berritzaileak eskatzen ditu inbertsioen atalean.

Garbigunes: se debe plantear a ver si nos encontramos frente a un problema, ya que eEn la calle se ven trastos de todo tipo alrededor del contenedor. Existe una costumbre extendida de dejar cualquier cosa al lado de los contenedores. Se deben llevar al garbigune. La Mancomunidad y los ayuntamientos deben fomentar información al respecto. Solicita inversiones innovadoras en el apartado de inversiones, para promover ese tipo de actuaciones.

Lehendakariak erantzun egin dio. Garbiguneen gaian uste du badirela nahikoak. Bere ustez planteatutako arazoan eragiten duena, neurri handiagoan, herritarren birziklatzeko kulturarekin eta erosotasunarekin lotutako gai bat da. Autokonplazentzian erori gabe dio balorazioa ez dela negatiboa izan behar. Uste du korapilatsua dela garbiguneak herriguneetan kokatzea, betiere ibilgailua erabili beharra egon ohi delako.

El Presidente le contesta. En el tema de los garbigunes considera que son suficientes. Opina que los problemas planteados responden más bien a un tema de cultura de reciclaje y comodidad por parte de los ciudadanos. Sin caer en la autocomplacencia, dice que la valoración no debe ser negativa. Ve complicado situar Garbigunes en el centro urbano, ya que implican siempre la utilización del coche.

Karakterizazioen datuen inguruan lehendariak dio alferreko alarma eragin aurretik, saiatu dira datuak biltzen egoera erreala zer-nolakoa den jakiteko. Esan du kudeatzaileak Batzarreko kide guztiei emango dizkiela beharrezkoak diren datuak. Uste du bideraezina dela kasu guztietan zatiki guztiak bereiztea. Hobetzea beti posible bada ere, perfekzioa ezinezkoa dela dio.

Sobre los datos de la caracterizaciones dice el presidente que antes de generar una alarma innecesaria se ha intentado recabar datos para saber cuál era la situación real. Dice que el gerente procederá a facilitar a los miembros de la Junta todos los datos necesarios. Considera que resulta inviable separar las diferentes fracciones en todos los casos. Si bien siempre resulta posible mejorar, dice que la perfección es imposible.

Zuzendari-kudeatzaileak ekarpenei emandako erantzuna osatu egin du: karakterizazioak egin diren bakoitzean, udalaren teknikoari bidali zaizkiola emaitzak. Are gehiago, zenbait kasutan teknikariak bertan egon dira karakterizazioak egiteko momentuan. Dio arlo juridiko teknikariarekin aztertu beharko dela ea udal guztien emaitzak Batzarraren ordezkari guztiei helaraztea posiblea den. Ingurumen arloko informazioa da eta tratamendu berezia dauka Europako araudian eta baliteke udalek

El director-gerente ha completado la respuesta dada a las aportaciones. Dice que cada vez que se han hecho las caracterizaciones se han enviado los resultados al personal técnico municipal. Es más, en algunos casos, los/las técnicos/as han asistido al momento de realizar la caracterización. Dice que se deberá analizar con la técnica en materia jurídica a ver si es posible enviar los resultados de todos los municipios a todos los representantes de la Junta. Se trata de información ambiental y

informazio hori konpartitu nahi ez izatea.

tiene un tratamiento específico según la normativa europea y tal vez los ayuntamientos no quieran compartir dicha información.

Dio Usurbilen kasuan konprobatu egingo dela karakterizazioak egin ziren ala ez.

Dice que en el caso de Usurbil se va a comprobar si se hicieron o no las caracterizaciones.

Esan du GHKk Gipuzkoako organikoa kudeatzen dituen planta guztiek baimena dutela "A" konposta egiteko (ez dago A+, izen komertziala besterik ez da).

Dice que todas las plantas con las que GHK gestiona el orgánico de Gipuzkoa tienen la licencia "A" para el compostaje (no existe A+, no es más que una denominación comercial).

Edukiontzien inguruan uzten diren hondakinen inguruan dio, erreflexio gisa, seguraski horrekin lotuta ematen diren gizalegezkoak ez diren jokabideak salatu (eta zigortu) beharko liratekela hainbat kasutan, baino arlo hori Mankomunitatearen eskumenetik kanpo geratzen dela.

Respecto a los residuos que se dejan alrededor de los contenedores, y como reflexión, dice que seguramente los comportamientos irrespetuosos que se dan en ese sentido se deberían denunciar (y sancionar) en muchos casos, pero ese ámbito queda fuera de las competencias de la Mancomunidad.

Eneritz Arbelaitzek insistitu egin du ekarpenaren asmoarekin, kudeaketa anbiziosoa eskatu du, ez konformista, nola egiten dugun neurtu, jakin eta datuen araberako erabaki ekintzak. Udalak eta herritarrek bere hondakinekin zer, non eta nola egin den jakin behar dutela dio.

Eneritz Arbelaitz insiste en el propósito de la aportación realizada, ha solicitado una gestión ambiciosa, no conformista, medir como se hace, saber y decidir las acciones en base a los datos. Dice que los ayuntamientos y los ciudadanos tienen que saber que, donde y cómo se hace con sus residuos.

Errenteriako ordezkariak Bernardo Lemosek azaldutako bi punturen inguruko informazio gehigarria eskatzen du: alde batetik furgoneta ibiltariaren zerbitzu berriak eta bestetik, "minigarbiguneen" kokapena pentsatu al den.

El representante de Rentería, Bernardo Lemos, solicita información adicional sobre dos puntos expuestos: por un lado, sobre los nuevos servicios de la furgoneta itinerante y, por otro, si se ha pensado la ubicación de los "minigarbigunes".

Presidenteak erantzun egin dio. Furgoneta ibiltariaren zerbitzurako pleguan lantzen ari dela hondakin gehiago jaso ahal izateko. Minigarbiguneen kokapenari buruz dio sistema hori ezartzeko aukera aztertzen ari direla eta, oraingoz, aukerak eta prezioak begiratu besterik ez dutela egin. Dio proba pilotu bat egingo dela, baina ez dutela xehetasun gehiago zehaztu.

El Presidente le responde que se está elaborando el pliego para el servicio de la furgoneta itinerante para que pueda recoger más residuos. Y sobre la ubicación de los minigarbigunes dice que se está estudiando la posibilidad de implantar ese sistema y que de momento, solo se han mirado opciones y precios. Dice que se realizará una prueba piloto, pero no se han concretado los detalles.

Eztabaida bukatutzat eman eta lehendakariaren proposamena bozkatu eta aldeko 105 botorekin eta 52 kontrako botoekin ERABAKI da:

Se da por concluido el debate y se vota la propuesta del presidente,y con 105 votos a favor y 52 en contra se ACUERDA:

LEHENA: 2019. ekitaldirako aurrekontu orokorra hasieran onartzea. 31.318.726€-tan orekatu da eta behin betikoa izango da, erabaki berririk hartu behar izan gabe, jendaurrean jartzeko epean alegaziorik ez bada aurkezten.

